

HEKTOR ORTEGA 'PREST' HERRI ALDIZKARIKO ZUZENDARIA



XOUSE SIMAL

«Informazino sare euskalduna egin gura dogu Deustualdean»

Izaskun Basterretxea | **BILBO**

Deustualdean, *Prest* izeneko herri aldizkaria jaio da hileon. Berbaizu euskera alkartetik sortu dabe, eta San Pedro, Arangoiti, Erribera, Elorrieta eta San Inazio dagozan euskaldun guztientzat egin gura dabe. Hilero 2000 ale kaleratuko ditue, eta doan banatuko dabe.

«Euskerazko prentsa lokala indartzeaz ganera, Deustualdean informazino sare euskalduna sortu gura dogu», esan deutso *Bizkaia*ri Hektor Ortegak, aldizkariaren zuzendariak.

■ Zergaitik eta zein helburugaz sortu da *Prest*?

Berbaizu euskera alkaratearen barruan sortu da. Alkaratearen barruan ikusi zan beharrezkoa zala komunikabide bat sortzea, euskaldunen lokarria izateko batetik, eta bestetik, komunikabide izateko, gure inguruko barriak kaleratzeko. Eta, Deustualdean euskera kaleratzeko bidea be izan gura dau.

■ Gai aldetik zelako atalak daukaz?

Erdiko orrialdeetan alkarizketa bat izango dau, eta 1. zenbakian, adibidez, Mikel Noval ELAko Exekutibako kideari egindakoa agertzen da. Hortik aparte, erreportaiak, *Barkua bete berba* atalean kultura, kirola eta aisialdia sartuko doguz, inkesta, argazki zaharrak, ikastolen ardurapean egindako atala... Lehiaketa bat be antolatu dogu: azalean agertzen dan argazkia Deustualdeko zein baztar dan igartea da kontua.

■ 1. zenbakia kalean dago. Zelakoa da balantzea?

Egia esanda, ia-ia ez dogu patxadaz ikusteko astirik euki. Baina poz-pozik gagoz. Gure asmoa kalitatezko aldizkaria eskaintzea da, zaindua, begietatik erraz sartzen dana...

■ Beste herri aldizkariak hartu-emonetan zagoze?

Bai, kide gara Topagunean. Ganera, aldizkaria kaleratzen lagundu deusku. Santutxuko *Ber-*

HARPIDEDUNAK

«'Prest' aldizkaria Deustualdeko euskaldun guztiakana heltzea gura dogu»

ton aldizkaritik be jaso dogu laguntasuna. Eta, lehenago, Deustualdean egon zan antzerako aldizkaria be, *Itzartu*, aintzat hartu dogu. Haren esperientzia kontuan hartu dogu, alde onak eta makaltasunak aztertu eta aldizkari sendoagoa egiteko helburuagaz.

■ Ale banatzea zelan egingo dozue?

Deustualdeko euskaldunen zerrenda bat egin dogu eta horrexei bialduko deutsegu, etxera, doan. Baina badakigu euskaldun gehiago dagozala, eta guztiengana ailegatu gura dogunez, gure inguruko jenteari esan deusagu barria zabaltzeko.

■ Zein da diru iturria?

Alde batetik publizitatea, eta horixe da gure erronka nagusia, eta bestetik, Berbaizu. Eta jakina, gainontzeko herri aldizkariaren antzera, geuk be diru laguntzak eskatuko doguz erakunde publikoetan.


■ Erredakzinoko lan taldea zenbatek osotzen dozue?

Alde batetik, komunikabideetan ibilitako jentea dago, eta bestetik, jente gazteagoa, ikasten dagozanak... Pertsona bi erdi-liberatuta dagoz, eta besteek doan egiten dabe lan.

■ Euskera aldetik, zein eredu ri jarraituko deusazue?

Erizpideak zehaztean erabagi genduan idazten dauanaren esku iztea. Baina, beti be, eredu finkatua erabiltea, hau da, bizkaieraz, batuan... baina nahas-tatutakorik edo norberak asmatutakorik ez. 1. zenbakian ia dana batuan dago. Azpimarratzekoa da zuzentzailea daukaguna. Euskera txukuna erabiltearen aldeko ahalegina egin dogu.

Dena Zuretzat



Goitik behera aldatu gara, eta estilo berriaz ikusiko dugu argia. Primeran pasa dezazun.



E S T I L O B E R R I A